



MUSIKA

# Altsasukoak ipar



J. A. ARETA GONZI (UJXE)

ARGAZKIAN 25TH COMING FIRE TALDEKO KIDEAK. DISKOAN SEÑOR NO TALDEAK ERE HARTU DU PARTE.

## IKER BARANDIARAN

**B**ada Euskal Herrian musikari be-launaldi bat 80ko hamarkadan RRVaz erabat aspertu zena. Nahiz eta kalea bizi, poliziaren jazarpena azalean jasan eta jarrera pertsonalean inplikatu, musika politikatik kanpo bizitzea aukeratu zuten. Errespetatzen zuten musika aldarrikapenekin ezkontzea eta ziurrenik bat zetozen haien aldarrikapenekin, baina ez zen haien hautua. Musika dibertimendua da haientzat.

Horregatik, Señor No taldeak Altsasuko gazteen aldeko ekimen bat sortu zuela kontatu zidatenean sorpresa (atsegina) hartu nuen. 25th Coming Fire taldekoekin EP-a erdibana grabatu zuten, bina kanta. Disko salmentan eta egitekoak ziren kontzertuetan batutako

guztia Altsasuko gazteentzat zen, baina ditzosozko COVID-19a heldu zen.

Hala ere, diskoa salgai dago –zuzenean aurkeztu ezinean– eta sarreraren idatzitakoaren harira bitxia da halako ekimenean Galiziako El Beasto, AEBetako American Leather, Madrilen kokatutako Munster eta Folc, Euskal Herriko Artza Recordsekin batera inplikaturik ikustea. Bakoitzaren haututik harago, argi dago –askok ukatu arren– guztia dela politika, eta taberna bateko eztabaida bero batengatik gazte batzuk milatik gora egun espetxean izatea intenzionalitate politikoa duen bidegabekeria itzela dela.

Donostiako Señor No taldea ezaguna da rockzaleen artean. La Perreren errautsetatik sortua, bizi-bizi jarrai-



## GAZTEAK ETXEAN NAHI DITUGU ASKOREN ARTEAN

FOLC, MUNSTER, ARTZA, EL BEASTO  
ETA AMERICAN LEATHER RECORDS

tzen du agertoki gainean. *Meando en la niebla tempo* erdiko pieza rockeroa da, erritmoekin eta giroekin jolasten duena. *La droga*, aldiz, taldearen hastapenei men eginda The Stooges taldetik sendo edaten duen pieza urgentea.

Donostialdean kokatutako 25th Coming Fire ez da hain ezaguna. Patxada handiarekin ingurune horretan eskola zaharreko hardcore-punkari dotoreziaz eusten dio taldeak. *Terrorist* pieza zuzen-zuzenean doa lepora bi ahotsekin –taldeko abeslari Amaia eta Poison Ideako Jerry A– zapalgailua erabilia. *Liams*-ek, aldiz, melodia eta amorrua baten ditu koordinada antzekoetan.

Diskoa eskuratzeko idatzi funfunfun321@hotmail.es helbide elektronikora. ●